

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako proiektu pilotu bat abiaraziko du tratu txarren emaileak berrezteko

*Sententzia irmorik gabe, kautelazko neurriak ezarrita dituzten eta beren borondatez parte hartzea erabakitzen duten erasotzaileentzat izango da*

Miércoles, 14 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioak bultzatutako proiektu pilotu bat abiaraziko du tratu txarren eragileak berrezteko eta berriz gizarteratzeko. Ekimena doako arreta psikologikoan datza eta, sententzia irmorik izan gabe, kautelazko neurriak ezarrita dituzten –esate baterako, urruntze-agindua- eta beren borondatez parte hartzea erabakitzen duten erasotzaileentzat da.

Proiektua 21.780 euroekin finantzatuko da, eta horietatik 13.000 Gobernu Zentralak jarriko ditu, eta gainerako 8.780 euroak Nafarroako Gobernuak. Xede horretarako, bi erakundeek lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko dute; Foru Gobernuak gaur onartu du hitzarmenaren testua.

Gehenez ere 24 plaza eskainiko dira, hamabina pertsonako bi talde terapeutikotan banatuta. Parte-hartzaileak epaitegietatik bideratuko dituzte, eta urtea amaitu baino lehen sartu behar dira programan, jarduerak 2012 ko martxoaren 31ra arte luza daitezkeen arren.

Guztira 24 saio egin ahal izango dira, eta bertan gizonezkoen eta emakumezkoen estereotipoekin, bulkaden kontrolarekin, asertibitatearekin eta amorrua gobernatzearekin lotutako gaiak landuko dira. Lehen saioak banakakoak izango dira parte-hartzaileen ebaluazioa egiteko eta gero taldean izango dira.

Hitzarmeneko testuak jasotzen duenaren arabera, programa honetan sartzen direnak ez dira izango inolako azterketa, ikerketa edo antzeko lanen xede, baldin eta Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioak espresuki baimentzen ez badu.

Iaz beste proiektu pilotu bat abiarazi zen, hura ere Gobernu Zentralak sustatuta eta interesa zuten autonomia-erkidegoekin lankidetzan. Kasu hartan, ordea, programa zigor irmoa zuten tratu txarren emaileentzat zen. Guztira zortzi pertsonak burutu zuten prozesua, kartzelaren orde.

Uztailaren 31ra arte, Nafarroan polizia-gorputz desberdinek (Foru Polizia, Guardia Zibila, Polizia Nazionalea eta Iruñeko Udaltzaingoa) 736 salaketa erregistratu dituzte tratu txarreatatik. Kopuru hori 2010ean aldi berean izan zena baino %3,66 handiagoa da, orduan 710 izan baitziren.